

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) lortzeko matrikulazio-epea astelehenean zabalduko da

*Interesa duten pertsonak urtarrilaren 20ra arte eman dezakete izena*

Osteguna, 2017.eko urtarrilak 5

Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) lortzeko 2017ko 1. deialdian parte hartzeko matrikulazio-epea, urtarrilaren 9tik 20ra izango da, biak barne. Azterketak egiteko interesa duten pertsonak Hezkuntza Departamentuko Informazioko Negoziatuan matrikulatu daitezke (Santo Domingo kalea, 8. Iruña), 08:30 etik 14:30 bitarteko ordutegian.

Hautagai bakoitzak 26 euro ordaindu beharko du azterketa-  
eskubideen kontzeptuan (13 euro lehen mailako familia ugariaren kasuan).  
Matrikula doan izango dute bigarren mailako familia ugariaren kideek.

Azterketa hiru probek osatzen dute: atarikoak, idatzia eta ahozkoa.

Atarikoan 80 galderek osatutako test bat erantzun beharko dute, eta harekin hizkuntz baliabideak, ahozko ulermena eta irakurmena ebaluatuko dira.

Bestalde, idatzizko azterketa bi ariketek osatuko dute: 180 hitzeko idatzi batek eta 250eko beste batek, gutxienez,.

Azkenik, ahozko probak ere bi atal izango ditu: emandako testu bati buruz bost minutuz hitz egin beharko da eta, horren ondoren, hamar minutuz eztabaidan ariko dira.

Titulua eskuratzeko hiru probak gainditu beharko dira.

Informazio gehiago lortzeko, [www.ega.navarra.es](http://www.ega.navarra.es) eta [www.navarra.es](http://www.navarra.es) webguneetara jo daiteke edo honako telefono-zenbaki hauetara deitu: 848 426 613 eta 848 426 593.